


GRADU AMAIERAKO LANA

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

MUSIKAREN ERABILERA ESKOLETAN HARREMANAK KUDEATZEKO TRESNA GISA

Egilea: Henar Reino Pérez

Zuzendaria: Miren Josu Arriolabengoa Igarza

Leioan, 2015eko ekainaren 3a

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Marko teoriko eta kontzeptuala.....	5
1.1. Umearen adimen emozionala eta soziala.....	5
1.2. Alderdi sozioemozionalaren eragina ikaskuntza-prozesuan.....	9
1.3. Adimen sozioemozionala Curriculumean.....	10
1.4. Musika eta garapen sozioemozionala.....	11
2. Helburua.....	12
3. Metodologia.....	12
4. Lanaren garapena.....	13
4.1. Behaketa-tresnak.....	13
4.2. Hasierako behaketa.....	14
4.3. Esku-hartzeen planteamendua.....	17
4.4. Azken emaitza.....	19
5. Ondorioak.....	20
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	21

ERANSKINAK

1. Eranskina. Behaketen erregistroa.....	24
2. Eranskina. Proposamen didaktikoak.....	32

MUSIKAREN ERABILERA ESKOLETAN HARREMANAK KUDEATZEKO TRESNA GISA

Henar Reino Pérez

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honetan, Lehen Hezkuntzako talde batean ikasleen parte-hartzea eta harremanak aztertu, eta hauek hobetzeko musikan oinarritutako lau proposamen didaktiko planteatzen dira, ikerketa-akzioaren bidez batetik besterako birmoldaketak eginez. Hainbat autoreen esanetan, musika harremanak sustatzeko baliabide eraginkorra da. Era berean, ikasleen zein irakaslearen arteko harremanak positiboak izanez gero, ikasleak ondo eta eroso sentitu, eta eguneroko jardueretan jarrera aktibo eta baikorragoaz arituko dira. Lortutako emaitzen aurrean, baieztatu daiteke taldean hitz eginez parte hartzeko zailtasunak dituzten ikasleak musikaren bidez harremantzeko erosoago sentitu direla.

Eskola, parte-hartze, musika, emozio, harreman, elkarrekintza

Este Trabajo de Fin de Grado analiza la participación y las relaciones establecidas en un grupo concreto de Educación Primaria. Con el fin de mejorarlas, plantea cuatro propuestas didácticas basadas en la música, realizando modificaciones de otra a través de la investigación-acción. Según varios autores, la música supone un recurso apropiado para reforzar las relaciones. Asimismo, en caso de establecerse una buena relación entre alumnos/as y/o profesores/as, los/as alumnos/as se sentirán bien y a gusto, lo que conllevará a una actitud más activa y positiva en las actividades del día a día. Teniendo en cuenta los resultados obtenidos, se puede afirmar que los/as alumnos/as que presentan mayor dificultad para participar en grupo a través de la conversación, sienten mayor comodidad para relacionarse en las actividades musicales.

Escuela, participación, música, emoción, relación, interacción

This project analyzes the participation and relationships among pupils in Primary Education. In order to improve those, it proposes four didactic proposals based on music, doing modifications through investigation-action. According to some authors, music is an appropriate resource to improve relationships. Moreover, if a good relationship is established, between students and teachers, pupils would feel good and comfortable, which will lead a more active and positive attitude in everyday's activities. Taking into account the results, children who have more difficulties to take part in a group through the conversation, they will feel comfortable interacting in musical activities.

School, participation, music, emotion, relationship, interaction

Sarrera

Eskoletako egunerokotasunean arituz gero, emozioen eta interakzio sozialen kudeaketak eta trataerak ikaskuntza-prozesua baldintzatzen dute, lanean zehar aurkeztuko diren hainbat autorek diotenaren arabera. Beraz, ikaskuntza-prozesua eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin, ikas-giro positiboa bultzatu beharra dago; izan ere, ikasleen zein irakasleen arteko harremanak positiboak eta afektuzkoak badira, umeak ondo eta eroso sentituko dira eta ikasgelan eguneroko jardueretan jarrera aktibo eta baikorragoa izango dute. Musikak alderdi sozioemozionalarekin lotura izanik (Waisburd, G. eta Erdmenger, E., 2007), lan honetan horien arteko uztarketa egiten da, musika harremanak sustatzeko baliabide gisa aurkeztuz.

Lehendabizi, gaia kokatzeko, abiapuntutzat hartzen diren ideien ikuspegi orokorra eskainiko da, autore desberdinen lanak eta hitzak bilduz. Ondoren, lanaren helburu nagusia aurkeztu eta lana garatzeko eman diren urratsak azalduko dira: errealitate konkretu baten azterketa eta ondorengo proposamen didaktikoen gauzatzea, ikerketa-akzioa (Latorre, 2003) erabiliz. Azkenik, ondorioak laburbilduko dira.

Hortaz, musikak eskolan duen presentzia eta horrek alderdi sozioemozionalan duen eragina aztertuko da, eta musikaren bidez klasean harreman egokiak bultzatzeko proposamen bat luzatuko da.

1. Marko teoriko eta kontzeptuala

1.1. Umearen adimen emozionala eta soziala

Adimena azaltzerakoan, ez dago estandarizatutako definizio bakar bat. Sanz de Acedok 2000. urtean emandakoaren arabera, arazoak konpontzeko eta gizarteak onar ditzakeen produktuak sortzeko gaitasuna da. Gainera, plurala da, hau da, dimentsio kognitiboak, emozionalak, sozialak eta sortzaileak ditu, eta moldagarria da. Beraz, moldagarria den heinean, irakatsi eta ikasi egin daiteke.

Umea berez adimen guztiekin jaiotzen da, baina bizipenen arabera batzuk besteak baino gehiago garatzen ditu, Del Pozo Roselló-k (2005: 54) ondoren azaltzen duen bezala: “(...) todos tenemos todas las inteligencias pero no hay dos personas que tengan la misma imagen, el mismo perfil de inteligencias.”

Eskola testuinguruan, Sanz de Acedoren (2000) esanetan, umeen adimen potentziala hobetu daiteke, ume horrek dituen gaitasun nabariak gehien estimulatuz eta defizitarioenak orekatuz, behintzat gizartera moldatzeko gutxieneko trebetasunak garatzeko.

Adimenari buruz emandako definizio hau Gardner-en *Adimen anitzen teoriarekin* bat dator. Autore honek dioenez, “(...) la visión antigua de la inteligencia, la visión tradicional, es una visión muy limitada, y estaríamos mucho mejor si tuviéramos una visión múltiple, pluralista de la inteligencia.” (Del Pozo Roselló, 2005: 51). Horren arabera, zortzi adimen-mota bereizten ditu, zeinen artean adimen intrapertsonala eta interpertsonala aurkitzen diren (Del Pozo Roselló, 2005).

Adimen intrapertsonala

Adimen intrapertsonala edo emozionala, Mayer eta Salovey-ren ereduari jarraituz, arazoei aurre egiteko eta testuinguruari modu eraginkorrean egokitzeko gaitasuna da, eta horretarako emozioak kudeatzen jakitea ezinbestekoa da (Fernández-Berrocal eta Ruiz Aranda, 2008). Horrez gain, hainbat autorek adimen-mota hori zehatzago definitzen duten ondorengo trebetasunak aipatzen dituzte (Extremera eta Fernández-Berrocal, 2003; Palomera, Gil-Olarte eta Brackett, 2006; Fernández-Berrocal eta Ruiz Aranda, 2008):

- Emozioak zehaztasunez antzematea, baloratzea eta adieraztea.
- Pentsamendua errazten duten sentimenduak sorraraztea.
- Emozioak ulertzea.
- Emozioak erregulatzea.

Del Pozo Roselló-ren (2005) proposamenak, Mayer eta Salovey-renarekin uztartuz, adimen intrapertsonalaren inguruko ikuspegi zabal eta sakonago bat

eraikitzen laguntzen du. Autore honek adimen honen adierazgarri gisa definitzen dituen gaitasunak ondorengoak dira:

- Nork bere burua ezagutzea; dituen gaitasunak, mugak, egoera emozionala, motibazioak, beldurrak eta nahiak, besteak beste.
- Autodiziplina izatea.
- Autoestimua altua izatea.
- Nork bere buruaz hausnartzeko gaitasuna izatea.
- Norberaren sentimenduen kontzientzia izatea.
- Sentimenduak adierazteko erraztasuna edukitzea.

Halaber, Morrison-ek (2005) adimen honetan nabarmentzen diren ikasleak deskribatzerakoan, haien sentimenduekin, baloreekin eta ideiekin kontaktuan dauden umeak direla azaltzen du, barnerakoiak izateko joera dutenak eta intuizioz ikasi ohi dutenak, ikasten dutenarekiko erlazio pertsonala ezarriz.

Adimen interpertsonala

Adimen interpertsonala edo sozialari dagokionez, Gardner-ek gainerako pertsonak ulertzeko gaitasun gisa definitzen du (Vílchez, 2002). Gehiago sakonduz, Del Pozo Roselló-ren (2005) proposamenari jarraiki, ondorengo gaitasun hauek hartzen ditu barne:

- Inguruko pertsonen egoera emozionala, motibazioak, nahiak, etab. ulertzea
- Inguruko pertsonekin modu eraginkorrean elkarrekintzan aritzea.
- Inguruko pertsonekin komunikatzea.
- Taldean lan egitea.
- Beste pertsonen ikuspuntuan entzun eta kontuan edukitzea, nahiz eta norberaren iritziarekin bat ez etorri.
- Enpatia; Palacios, González eta Padillak (1999) beste pertsonen emozioak identifikatzeko eta haien lekuan jartzeko gaitasun gisa definitzen dutena.

Adimen-mota hau garatua duten umeak identifikatzeko, kanporakoiak izaten dira, hots, jendeari zuzendu ohi dira, eta taldean modu kooperatiboan ikasteko joera daukate (Morrison, 2005).

Adimen intrapertsonala eta interpertsonalaren arteko elkarreagina

Azaldutako bi adimen-mota hauen arteko lotura ezartzen duten hainbat autore daude. Goleman-ek 1995an emandakoa hartzen da adimen emozional kontzeptuaren lehenengo definiziotzat. Haren barnean bost elementu nabarmentzen ditu: emozioen kontzientzia, autokontrola, motibazioa, enpatia eta trebetasun soziala. Lehenengo hirurak norbere buruaren bat datozen bitartean, beste biek harreman sozialei egiten diete erreferentzia. (Buey, 2002).


Halaber, Poch-ek (2001) alderdi emozionala lantzeak norberarengan zein norberaren testuinguru sozialean onurak dituela azaltzen du, gizakia soziala baita. Halaber, adimen emozionalari buruz ematen duen definizioan ere ikuspegi soziala agerikoa da; izan ere, adimen emozional gisa norberaren emozioak ezagutu eta horiek kontrolatzeko gaitasunaz gain, beste pertsonen emozioak identifikatzeko gaitasuna eta inguruko pertsonetikiko harremanak kontrolatzeko trebetasuna ere barne hartzen ditu.

Lahoza-ren (2012) proposamena ere ildo horretatik doa. Sentimenduak modu egokian eta zehatzean hautemateko, ulertzeko eta horiei erantzuteko gaitasuna aipatzen du; eta horrez gain, norberaren zein beste pertsonen egoera emozionala erregulatzeko edo aldatzeko gaitasunari ere erreferentzia egiten dio, norberaren banakotasuna gaindituz.

Laburbilduz, norberaren egoera emozionala eta inguruko pertsonetikiko harremanen artean lotura bat dagoela eta elkar baldintzatzen dutela esan daiteke. Kasu honetan, eskolako testuinguruan kokatuz, ikasleek ikaskideekin zein irakasleekin harreman positiboak edukiz gero, ondo sentituko dira; eta ondo sentituz gero, ikas-giroa positiboa izango da.

1.2. Alderdi sozioemozionalaren eragina ikaskuntza-prozesuan

Maslow-k bere *Autoerrealizazioaren teorian* baieztatutakoaren arabera, gizakiaren beharrian nagusia autoerrealizazioa da. Horretara heltzeko, ondorengo irudian agertzen diren beharrak asebetetzea ezinbestekoa da (Morrison, 2005).



(Morrison, 2005: 103)

Autoerrealizaziora heltzeko beharrian afektibo batzuk bete behar dira, zeinen artean inguruko pertsonen gustatzea, maitatuak sentitzea eta taldeko kide sentitzea bereizten direlarik. Horiek, oinarriko beharrianak diren heinean, behar-beharrezkoak dira pertsonak modu egokian jardun eta gai diren lorpenetara heltzeko (Morrison, 2005).

Guzti hori esparru akademikoaren eremura eramanez, eta aurreko ataletan aipatutako adimen emozionala eta soziala kontuan hartuz, egoera emozionalak errendimendu akademikoa baldintzatu egiten duela esan daiteke (Extremera eta Fernández-Berrocal, 2003; Lacárcel, 2003; Palomera, Gil-Olarte eta Brackett, 2006; Fernández-Berrocal eta Ruiz Aranda, 2008).

Zenbait autore dira ideia horren alde egiten dutenak. Lacárcel-en (2003) ustetan, adimen emozionalaren garapenak gaitasun intelektualaren eta

pertsonalaren errendimendua hobetzen du. Trebetasun emozional eskasak edukitzeak, aldiz, ikaskuntzan zehar aurkitzen diren oztopoak gainditzeko zailtasuna eta estresa areagotzen ditu (Fernández-Berrocal eta Ruiz Aranda, 2008).

Horrenbestez, “Potenciar la expresión emocional en el aula o el recinto académico (...) complementaría el desarrollo cognitivo (...) porque fijaría cualidades como la motivación o la responsabilidad hacia el acto de aprender.” (Albornoz, 2009).

1.3. Adimen sozioemozionala Curriculumean

Euskal Autonomi Erkidegoko Hezkuntza-Sistema arautzen duen 2007ko Curriculum dekretuan zehazten denez, Oinarrizko Hezkuntzaren xede nagusia ikasleen garapen integrala edo osoa ahalbidetzea da. Hau da, ikasleak goimailako ikasketak burutzeko prestatzeaz gain, gizaki moduan garatzeko alderdiak ere lantzea ezinbestekoa da, gizartean modu eraginkorrean bizi ahal izateko. Izan ere, “Educar consiste (...) en formar personas capaces de vivir y convivir en una sociedad plural enriqueciéndose mutuamente.” (Del Pozo Roselló, 2005: 113).

Curriculum oinarrizko gaitasunen inguruan egituratuta dago, garapen osorako erreferentziazko ardatzak direnak, hau da, ikasleak errealizazioa lortzeko garatu beharrekoak. Zortzi dira garapen integralera heltzeko garatu beharreko gaitasunak: zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna; ikasten ikasteko gaitasuna; matematikarako gaitasuna; hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna; gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; giza eta arte-kulturarako gaitasuna, eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Horrenbestez, EAEko Hezkuntza-Sistema arautzen duen Curriculum dekretuaren planteamendua, Gardner-ek proposatutako adimenaren ikuspegi pluralaren ildotik doala esan daiteke.

Lan honetan, ordea, garapen osoaren osagai diren bi aspektutan sakonduko da: garapen emozionalean eta garapen sozialean. Ardatz izango diren bi

alderdi horiek curriculumean duten presentzia aztertuz gero, zenbait erreferentzia aurki daitezke gaitasun orokorrak aurkezten direnean:

- Ikasten ikasteko gaitasunaren barne, norberaren gaitasunen kontzientzia hartzea aipatzen da, baita gaitasun emozionalez ere; nork bere burua gai ikusteak ikasteko motibazioa pizten duelarik. Halaber, ikaskuntza kooperatiboari erreferentzia egiten zaio, inguruko pertsonekin batera ikastearen garrantzia azpimarratuz.
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari dagokionez, nork bere burua ezagutzea ere aipatzen da; baina oraingo honetan pausu bat haratago doa: nork bere burua balioestea. Horrez gain, beste pertsonen lekuan jartzeko gaitasuna agertzen da. Beraz, alderdi sozioemozionalarekin lotuta dauden autoestimua eta enpatiaren kontzeptuei erreparatu egiten zaie.
- Giza eta arte-kulturarako gaitasunean, norberaren eta besteen ideiak eta sentimenduak berregiteko gaitasuna azaltzen da.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunaren kasuan, ume batek gaitasun hori garatzeko zehazten diren adierazleak honakoak dira: nork bere burua ezagutzea; nork bere buruarekiko harreman egokia izatea; autokonfiantza; autoestimua; kontrol emozionala; harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako trebetasunak; eta besteen lekuan jartzea (enpatia).

1.4. Musika eta garapen sozioemozionala

Musikari buruz aurki daitezkeen definizioen artean, Waisburd eta Erdmenger-enak (2007) musika alderdi sozioemozionalarekin erlazionatzen du: “La música es una forma de comunicación entre las personas (...) provoca respuestas emocionales, aunque no sucede de la misma manera en cada persona, ya que depende tanto de los estados de ánimo de los que escuchan la música como de su historia personal.” (Waisburd eta Erdmenger, 2007: 24). Poch-ek (2001) halaber, musikaren onurak zehazterakoan, bakardadea desagerrarazten eta sozializatzen laguntzen duela azaltzen du.

Musika komunikazio-bidetzat definitzen den heinean, erabilera sozialak atxikitzen zaizkio, eta alderdi emozionalean duen eraginari ere erreferentzia egiten zaio. Waisburd eta Erdmenger autoreen arabera (2007), musikak ongizatea sentitzen laguntzen du, adimen intrapertsonala eta interpertsonalaren garapena errazten baitu. Hortaz, tresna pedagogiko baliogarria izan daiteke umearen garapen integralerako.

Musikak eskaintzen dituen ekarpen hauen aplikagarritasuna Curriculumean islatuta dago. Bertan, arteaz eta musikaz egiten den trataera aztertuz gero, honakoa ikus daiteke: artea sentimenduen adierazpenarekin erlazionatzen dela eta nortasuna eraikitzen laguntzen duela aipatzen da. Musikan sakonduz, emozioetan, sozializazioan eta nortasunaren eraikuntzan eragina duela azaltzen da.

Beraz, Rodriguez-en hitzak aipa daitezke: “La Didáctica de la Música que por sí misma desarrolla y expande la sensibilidad de los alumnos/as, potencia sus capacidades afectivas, sensoriales, perceptivas, psicomotrices, sociales, cognitivas que conforman el «todo» del sujeto (...).” (Rodríguez, 2001).

Konklusio gisa, musika eskolako testuinguruan emozioak eta interakzio sozialak kudeatzeko tresna eraginkorra da, eta horrela jasota dauka EAE-ko Curriculumak.

2. Helburua

Lan honen helburua hitz egin eta parte hartzeko zailtasunak dituzten LH 2-ko talde bateko umei musika jardueren bidez harremantzeko aukerak eskaintzea da, haien buruarenganako konfiantza indartuz eta ikaskideekin eroso sentiaraziz. Honekin, giro positiboa sustatu nahi da, ikasgelan eguneroko jardueretan jarrera aktibo eta baikorra bultzatzeko.

3. Metodologia

Lan honetan, Lehen Hezkuntzako 2. Mailako talde batean, hiru hilabetetan zehar ikas-giroa hobetzeko proposamen eraginkorren bilaketa egin da. Horretarako, *La investigación-acción. Conocer y cambiar la práctica educativa*

(Latorre, 2003) lanean azaltzen den “ikerketa-akzioa” deritzon metodologia jarraitu da.

Prozedura honetan, hasteko marko teorikoa eraiki da, lanean garatzen diren ideien ikuspegi orokorra eman eta horien fidagarritasuna bermatzeko. Jarraitzeko, errealitatearen behaketa egin da. Ondoren, aurreko pausuak kontutan hartuz, esku-hartze bat planteatu da honen eraginkortasuna behatu eta ebaluatuz, hurrengo esku-hartzeari begira egin beharreko birmoldaketak . Bide hau jarraituz, lau esku-hartze desberdin planteatu dira. Bukatzeko, azken ebaluaketa egin eta ondorioak atera dira.

4. Lanaren garapena

Burututako lan hau Leioako Alzaga Ikastolan aurrera eraman da Lehen Hezkuntzako bigarren mailan. Hasierako errealitatearen behaketa egin ondoren, lehenengo esku-hartze bat planteatu da. Ondoren, horretatik abiatuz, birmoldaketak planteatzen joan dira beste hiru proposamenetan zehar. Prozesua ikerketa-akzioa metodologia jarraituz bideratu da, guztira lau esku-hartze burutu direlarik.

4.1 Behaketa-tresnak

Bi behaketa-mota burutu dira: bat errealitatea aztertzeko eta bestea esku-hartzeen eraginkortasuna egiaztatzeko.

Hilabetean zehar ikastalde berarekin aritzeak, egunerokotasuneko ohiturak eta dinamikak zuzenean behatzeko aukera eman du. Zehazki, hiru izan dira behatu diren alderdiak:

- Ikasleen jokabideak eta jarrerak, bai ikaskideekiko zein lanarekiko.
- Tutoreak ikasleen jokabideak eta jarrerak kudeatzeko duen era.
- Musikaren presentzia eta erabilera klaseko egunerokotasunean.

Horien inguruan emandako egoera aipagarri edo nabarmenenak idatziz jaso dira (*1. Eranskina: behaketen erregistroa*).

Behaketa horietan jasotako datuak egiaztatzeko, tutorearekin konpartitu eta horien inguruan hausnartu da. Izan ere, tutoreak ikasleen egoera eta ezaugarriak modu zabalagoan ezagutzen ditu.

Bestetik, aurrera eraman diren esku-hartzeetan behatu diren aspektuak ondorengoak izan dira:

- Ikasleen jokabideak eta jarrerak, bai ikaskideekiko zein proposatutako jardueretikiko.
- Hasierako planifikaziotik egin behar izandako moldaketak.

4.2. Hasierako behaketa

4.2.1. Jasotako informazioa

Ikasleen profila

Taldearen izaera orokorrean irekia dela esan daiteke. Izan ere, egoera desberdinetara eta irakasle desberdinetara erraz egokitzen dira, hau da, proposamen berriak onartzen dituzte eta pertsona berriekiko jokabide egokia izaten dute.

Ikaskuntzaren garapenari dagokionez, lanerako oso erritmo desberdinak daude. Ez dago ikasketa-arazorik duen umerik, baina erritmoak alderdi kognitiboan maila-desberdintasunak eragiten ditu. Izan ere, ulermen eta ekimenerako denbora gehiago behar duten umeak pauso bat atzerago daude beti azkarrago ulertu edota egiten dutenekin konparatuz, ikaskuntza-prosezuan oztoporik suposatu ez arren.

Oro har, parte-hartzaileak eta arduratsuak dira. Klaseko dinamiketan gogotsu aritzen dira, eztabaidetan ekarpenak egiten dituzte eta materialak eta informazioa ekartzen dute etxetik. Hala ere, profil anitzeko ikasleak daude eta neurri desberdinetan parte hartzen dute, bakoitzaren izaeraren arabera. Lotsatiagoak edo barnerakoiagoak diren umei gehiago kostatzen zaie naturaltasunez hitz egitea eta irakasleak egiten dituen galderari berez erantzutea. Tutorea parte-hartze orekatua eta integrazioa bultzatzeko lan sakona egiten ari den arren, hau da, ume horiek estimulatzeko eta parte

hartzaileak diren ikasleak besteekiko errespetuan hezten, ume batzuk dinamiketarik kanpo gelditzen dira.

Arazoak sortzen direnean, tutorea ikasleekin zuzenean hitz eginez edota familiekin bilduz saiatzen da bideratzen. Etxeko egoeragatik emozioak eta jokabideak kontrolatzeko zailtasunak dituzten umeek, batzuetan klase barruko harremanetan gatazkak eragiten dituzte. Baina orokorrean ez dago ez bazterketa-arazorik ezta talde-banaketarik ere.

Adimen emozional eta sozialaren inguruko dinamikak

Ikasgelako antolaketa fisikoan bi gune nagusi bereizten dira: lan-gunea eta korroa. Lan-gunean, ikasleen mahaia taldeka antolatuta badaude ere, lan individuala burutzeko espazioa da. Korroa gune txikiena da eta gelako izkina batean, U forma eratzen duten banku batzuek osatuta dago. Bertan, irakurtzeko liburuak, jostailuak, ikasleek ekarritako argazkiak edo informazioa daude.

Egunean zehar hiru momentutan biltzen dira korroan, gelara sartzen diren bakoitzean (goizean, atsedenaldirik bueltan eta jantokitik bueltan). Bertan, eguneroko elkarrizketa arruntetarako aukera uzten da; astelehenetan, esate baterako, asteburuan zehar egindakoaz mintzatzen dira, goizetan egin behar zituzten etxerako lanez, atsedenaldiraren ondoren jolastokian sortutako gatazkak konpontzen dira, etab.

Hortaz, gatazkei aurre egin eta bideratzeko korro-gunea erabiltzen da. Jarraitzen den prozedura honakoa da: kaltetua izan denak zein txarto jokatu duenak irakasleari gertatutakoa azaldu, irakasleak txarto jokatu duenari bere jokaeraren zergatiaz galdetu, eta ikaskide guztien artean gertatutakoa ez erreplikatzeko proposamenak eman.

Halaber, trebetasun sozialak garatzeko beste ekintza bat ere burutzen da. Ostegun arratsaldetan gimnasioa libre egoten dela aprobetxatuz, hamabostero bertara joaten dira jolastera. Bertan, modu librean jolasteko askatasuna dute; arau bakarra da inor ez baztertzea da. Arazo edo gatazkarik egotekotan, horretan parte hartu dutenak jolasetik kanpo gelditzen dira, izkina batean eseri eta gainerakoei disfrutatzen utziz.

Irakaslea bazter batean eseri ohi da eta umeen arteko harremanak eta gaitasun sozialak aztertzen ibiltzen da; baina arazoren bat ikusten duenean berez bideratzen uzten du, parte hartu gabe. Hau da, umeen artean sortzen diren arazoak haiek konpontzen dituzte.

Musikaren presentzia eta erabilera klaseko egunerokotasunean

Musika ikasgaiaz gain, musikarekin harreman handia ematen da klaseko egunerokotasunean. Hasteko, eskolara sartzeko deiaren seinalea megafoniatik jarritako musika da, normalean euskal kulturaren barnean kokatzen diren abesti ezagunak. Klaseko dinamikan sartzeko ere, tutoreak abesti bat jarri eta arbel digitalean letra proiektatzen du ikasleek abes dezaten; horrela, lasaitu eta lanerako giroa lortzen da.

Lanean ari direnean, batez ere esfortzua eskatzen duten lan indibidualetan edota ikasleak nekatuta daudela nabaritzen denean, eten txiki bat egiten da. Egoera hauetan irakasleak musika edo bideo ezagunen bat jartzen du ikasleek dantzatu edo abesteko. Saioaren bukaeran ere klaseari amaiera emateko musika erabiltzen da.

Zenbaitetan, jarduera batetik bestera pasatzerakoan, erabili dituzten materialak batu behar dituztenean ere musikaz baliatzen dira denbora kontrolatzeko. Musikak irauten duen denbora soilik uzten zaie guztia ordenatzeko, eta irakasleak argibideren bat eman behar duenean, musika gelditzearekin ikasleen isiltasuna eta arreta lortzen ditu.

4.2.2. Diagnostikoa

Orokorrean, egunerokotasunean alderdi sozioemozionala lantzen dela esan daiteke. Egunean zehar hainbat alditan korroan biltzeak talde moduan lan egitea ahalbidetzen du eta baita sortzen diren egoera gatazkatsuei jarraitasuna ematea ere. Korroa klasekideen arteko hurbilketa ahalbidetu eta elkarrizketarako aukera ematen duen espazioa da. Hurbiltasun fisikoa zein afektiboa eskaintzen ditu eta, beraz, alderdi sozioemozionala lantzeko egokia suertatzen da.

Horretaz aparte, hamabostero gimnasioan jolasteko denbora eskaintzeak trebetasun sozialak garatzeko aukera ematen du. Izan ere, ikasleak askatasunez aritzen dira jolasaz gozatuz eta gozamen hori ikaskideekin konpartituz. Gainera, irakasleak ez duenez interbentziorik egiten, sortzen diren arazoak konpontzeko estrategiak garatu behar dituzte. Irakasleari egoera kanpotik ikusteak gelako giroa eta harremanen ebaluazioa egiteko aukera ematen dio, egunerokotasunean zein aspektutan sakondu behar den erabakitzeko.

Gatazkak hitz eginez bideratzen dira batez ere eta, ondorioz, hitz egiteko eta taldean parte hartzeko erraztasuna duten ikasleak nabarmentzen dira. Horretarako gaitasun eskasagoak dituztenak, berriz, dinamikatik kanpo gelditzen dira.

Halaber, egoera gatazkatsu horietan gailentzen diren emozioak haserrea eta frustrazioa dira. Beraz, adimen emozionalaren inguruan egiten den lana emozio horietara bideratuta dago neurri handi batean, bestelako emozioei aurre egiteko estrategiak ez dira jorratzen.

Musikak egunerokotasunean duen presentziari eta horren erabilerari erreferentzia eginez, garrantzia ematen zaion baliabidea da. Alde batetik, errutinak finkatzeko erabiltzen da; hala nola, eskolara sartzeko orduaren seinale gisa, klaseko dinamikan kokatzeko edo denbora kontrolatzeko. Beste alde batetik, disfrutatze eta atsedean hartzeko ere erabiltzen da, ekintza exigenteen ondoren. Hortaz, ez zaio adimen emozionala garatzeko erabilerarik ematen.

4.3. Esku-hartzeen planteamendua

Tutoreak ikasleriaren ongizatea eta ikas-giro positiboa bultzatzeko erabiltzen dituen estrategiak zabaltzeko asmoz, hainbat esku-hartze eraman dira praktikara. Proposamen didaktikoen helburu nagusia taldean hitz egiteko zailtasunak dituzten umeei parte hartzeko beste bide batzuk eskaintzea izan da, musikaren erabilera oinarritzat hartuz. Horren bidez, harremanak indartzea eta ongizate sentimendua bultzatzea bilatu da, taldean aritzeak sortzen dituen lotsa edo urduritasun emozioak gainditzeko estrategiak bilatuz.

Esan bezala, planteatutako esku-hartzeetan baliabide nagusia musika izan da, soinu-adierazpen eta gorputz-adierazpenaren bitartez. Jarduerak talde handian burutzeko diseinatu dira, talde-kohesioa eta harreman sozialak indartzeko.

Proposamena lau saioetan antolatu da (informazio zehatzagoa eskuratzeko, *ikusi 2. eranskina: proposamen didaktikoak*).

Lehenengo saioan, nork bere gaitasunez ohartzea eta besteekin konpartitzea ahalbidetzeko jarduera bat burutu da. Ikasleek ondo ematen zaien ekintzaren bat pentsatu eta ikaskideei mimika eta soinu bidez adierazi behar izan diete. Ikasle batzuei zaila egin zaie, jarduera honen planteamendua pentsamendu arrazionaletik abiatu eta inguruko pertsoneri zuzendu delako. Hau da, besteei eskaintzeko zerbait sortu behar izan dute, inguruko juizioak jasotzeko sor dezakeen presioarekin, musikaren bizipen naturalean oinarritu eta norberaren ongizatea bilatu beharrean. Testuinguru horretan, musika komunikatzeko bide gisa bakarrik erabili da, emozioak askatzeko eta harremanak indartzeko erabili ordez. Hori dela eta, hurrengo saioetan musikaren bizipena bultzatu da.

Bigarren saioan, soinu-imitazioa izan da jardueraren ardatza, taldekideen arteko interakzioa sustatzeko. Txandaka soinu-ereduak eman dituzte eta gainerakoak imitatzen joan dira. Ikasle guztiek parte hartu ez duten arren, normalean eguneroko jardueretan baino ikasle gehiagok izan dute parte hartzeko iniziatiba. Irizpide zehatzik gabe inprobisatzeko askatasuna izateak haien buruan konfiantza izaten lagundu die. Honela barne-ongizate areagotuz taldean presiorik gabe parte hartzea erraztu da. Halaber, esku-hartzeak espazio handiagoan egiteko beharra detektatu da, ikasleek mugimendurako premia erakutsi baitute.

Hirugarren saioa liburutegian dagoen gune zabal batean burutu da eta hiru jarduera planteatu dira. Lehenengoan, aurreko saioko jardueran lortutako emaitzak kontuan hartuta, antzeko planteamendua egin da. Musika jarraituz, taldekideek txandaka mugimenduak egin dituzte gainerakoek imitatzeko. Hasierako eredia nik eman dut eta, ondoren, ikasleek, taldean eroso sentitu direnean, aleatorioki txanda hartzeko aukera izan dute, gehienek iniziatiba hartzea lortu dutelarik. Bigarren jardueran, irizpide desberdinak kontuan hartuta, musika jarraituz bikoteka dantzatu dute. Harremanak zabaltzeko bikote-aldaketak planteatu dira. Honen aurrean, ume batzuk erlazio estua ez duten

ikaskideekin dantzatzeko segurtasun falta agertu dute. Bukatzeko, lurrean etzanda eta musika lasaiaz, erlaxatzeko unea utzi da. Orokorrean, lasaitzea zaila izan da, ume batzuk hizketan eta barrezka egon direlako, bakardadean baino besteekin harremanetan jarraitu nahi zutelako.

Laugarren saioan, ordena jarraituz taldekide bakoitzak soinu- eta keinu-eredu bat eman du gainerakoek imitatzen, eta guztiak elkartuz soinu-kate komun bat eratu da. Ordenan eginez, ikasle guztien parte-hartzea bermatu da. Erantzuna ona izan da, aurreko saioekin alderatuz, ez zaie hainbeste kostatu taldeari norberaren ekarpena eskaintzea. Hurrengo jardueran, musika jarraituz taldean dantzatzeko aukera izan dute, lehendabizi bikoteak sortuz, gero bikote bi elkartuz laukoteak sortuz eta prozedura bera erabili izan da ikasle guztiek talde bakar batetan bildu arte. Modu horretan, aurreko saioan bikotez aldatzeko zailtasunak izandako umeek harremanak zabaltzeko aukera izan dute, jardueraren hasieran aukeratutako bikotekidearen babesa izanik. Ondoren, lurrean eserita zaldi-lasterketa bat sonorizatu da, ikasleek inprobisazioaz baliatuz testuinguru horretan eman daitezkeen egoerak irudikatu dituztelarik. Kasu honetan, aurrera eramandako esku-hartzeen eraginkortasuna neurtzeko, parte-hartzea askea izan da eta orokorki gehienek iniziatiba hartu dutela esan daiteke. Amaitzeko, erlaxazio-jarduera egin da eta, denbora gehiago behar izan bada ere, emaitza aurrekoan baino hobetagoa izan da. Lau minutu inguru isilik egotea lortu dute, bakoitzak bere barne-egoerarekin konektatzeko.

Antzeman daitekeenez, ikasleen jarrera eta erantzuna kontuan harturik, saio batetik bestera hainbat egokitzapen egin behar izan dira esku-hartzeak ahalik eta eraginkorrenak izateko.

4.4. Azken emaitza

Planteatutako esku-hartzeetan, orokorrean ikasleen jarrera baikorra izan da, gogotsu aritu dira eta parte hartzeko gogoia erakutsi dute. Aipatzekoak dira bereziki, normalean taldean nabarmentzen ez diren ikasleen kasuak. Ikasle horiei parte hartzea kostatzen zaienez, haiekin enpatiaz jokatu da beharrezkoa duten denbora emanez, egiten dutena ahoz baloratuz edota aprobaziozko begiradak eskainiz. Dena den, nire jarrera tinkoa izan da parte-hartzeari

dagokionez, dinamikatik kanpo geratzeko aukerarik eman gabe. Azkenean, ikasleriak neurri handian segurtasun falta eta lotsa gainditzea lortu eta jarrera aktiboa izan du.

Jarduera eta egoera berrien proposamenak direla eta, jarduera batetik bestera pasatzeko zailtasunak izan dira, ohitura faltagatik.

Antzeman izan da ongizatea lortu den jardueretan ikasleek sentitzen dutena besteekin konpartitzeko joera erakutsi dutela. Kasu horietan, malgutasunez jokatu da, sentitzen dutena adierazteko behar hori errespetatuz, baina dinamika gelditu barik.

Ikasleen balorazioa ere kontuan eduki da, batik bat, dinamiketan nola sentitu diren. Horretarako, saio bakoitzaren amaieran gustatu zaien, eroso egon diren eta taldekideekin ondo sentitu diren galdetu zaie. Erantzuna emateko, hitzez izan beharrean, gorputz- eta soinu-adierazpena erabili behar izan dute; esate baterako, erantzuna baiezkoa izanez gero, barre eginez, buruarekin edota eskuekin bai esanez edo besarkada bat emanez. Horrela, hitz egiteko zailtasunak dituzten umeak ere eroso sentitu eta eraginkortasunez komunikatu izan dira.

5. Ondorioak

Lehen Hezkuntzako Graduak iraun dituen lau urte hauetan, hezkuntzari buruz hausnarketa sakonak egiteko aukera anitz izan ditut. Bide horretan, eskolako testuinguruan kideen egoera emozionalak eta elkarren arteko harremanek eguneroko jardunean duten eragina aztertu ahal izan dut, neurri xumean bada ere.

Aztertu ahal izan denez, klasekideek haien gaitasunak eta mugak ezagutu eta onartzen dituztenean, nor bere buruarekin eroso sentitu eta taldean harremantzea errazago egiten zaie, eta horrela ikaskuntza-irakaskuntza eraginkorragoa ahalbidetzen dela esan daiteke. Baita alderantziz ere, taldeko elkarrekintzak positiboak izanez gero, kideen egoera emozionala hobetzen da. Hortaz, eskolan alderdi sozioemozionalean sakontzea beharrezkoa dela ondoriozta daiteke.

Testuinguru horretan, musikaren erabilera aproposa da, harremanak indartzeko aukera ematen duelako eta giro atsegina sortzen duelako. Proposatutako esku-hartzeetan, musikaren bizipenaren bidez lortutako dibertsiozko giroak normalean taldeko jardueretan parte-hartzen ez duten ikasleei jarrera aktiboagoa izatera animatu die. Beharbada, musikak eskaintzen duen batekotasunak pentsamendu arrazionala gainditu eta emozioak askatzeko aukera eman dielako, barne-askatasunak ikaskideekin harreman naturalagoak eta hurbilagoak ezartzea ahalbidetuz.

Beraz, lanaren balorazio orokorra positiboa dela esan daiteke. Hala ere, esku-hartze kopurua laburra gelditu dela uste dut, lan honetan proposatu diren jarduera-motei jarraitasuna eman beharko litzaieke. Puntualki proposatu beharrean, parte-hartzeko beste bide batzuekin tartekatu beharko lirateke, taldean hitz egiteko zailtasunak dituzten ume horiek musikaren bidezko jardueretan lortutako konfiantza gainerako egoeretara transferitzeko.

Konklusio orokor modura, lan hau burutzeak irakaslearen lana beste ikuspuntu batetik ulertzen lagundu dit, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin etengabe hobetzeko prest dagoen pertsona aktibo gisa, hain zuzen.

7. Erreferentzia bibliografikoak.

- Albornoz, Y. (2009). Emoción, música y aprendizaje significativo. Artículos arbitrados; 44: 67-73. 2015-02-03an hartuta, hemendik: <http://www.saber.ula.ve/bitstream/123456789/28823/1/articulo7.pdf>
- Buey, M. L. D. (2002). Importancia de la inteligencia emocional: un nuevo reto para la orientación educativa. Educación XX1, 5, 77-96. 2015-05-27an hartuta, hemendik: <http://search.proquest.com/docview/1112221289?accountid=17248>
- Del Pozo Roselló, M. (2005). Una experiencia a compartir. Las Inteligencias Múltiples en el Colegio Montserrat. Barcelona: Impresión Offset Derra.
- Extremera, N. eta Fernández-Berrocal, P. (2003). La inteligencia emocional en el contexto educativo: hallazgos científicos de sus efectos en el aula. Revista de Educación; 332: 97-116. 2015-01-26an hartuta, hemendik: <http://www.mecd.gob.es/dctm/revista-de->

educacion/articulosre332/re3320611443.pdf?documentId=0901e72b81256ae3

- Fernández-Berrocal, P. eta Ruiz Aranda, D. (2008). La Inteligencia emocional en la Educación. *Revista Electrónica de Investigación Psicoeducativa*; 15: 421-436. 2015-01-02an hartuta, hemendik: <http://www.investigacion-psicopedagogica.org/revista/new/ContadorArticulo.php?256>
- Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2007). Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum. Dekretua. III. Eranskina: Oinarrizko gaitasunak. Gasteiz: EHAA. 2015-01-07an hartuta, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarrizko_gaitasunak.pdf
- Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2007). Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum. Dekretua. IV. Eranskina: Lehen Hezkuntzako Arloak. Gasteiz: EHAA. 2015-01-14an hartuta, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/iv_eranskina_02_arte.pdf
- Lacárcel, J. (2003). Psicología de la música y emoción de la música. *Educatio*; 20, 21. 2015-01-02an hartuta, hemendik: <http://revistas.um.es/educatio/article/viewFile/138/122>
- Lahoza, L. I. (2012). Cómo desarrollar la inteligencia emocional en los niños. *Revista Arista Digital*; 26: 18-23. 2015-01-02an hartuta, hemendik: http://www.afapna.es/web/aristadigital/archivos_revista/2012_noviembre_4.pdf
- Latorre, A. (2003). La investigación-acción. Conocer y cambiar la práctica educativa. Graó. 2015-05-18an hartuta, hemendik: http://www.cneq.unam.mx/programas/actuales/especial_maest/maestria/ff_cn_1aE/00/02_material/archivos/11_Latorre-Inv-Acc-cap-1.pdf
- Morrison, G. (2005). Teorías aplicadas a la enseñanza y aprendizaje: fundamentos para la práctica. *Educación infantil* (89-113). Madrid: Pearson Educación. 2014-12-27an hartuta, hemendik: <https://books.google.es/books?id=BBJWBEQTARAC&pg=PA102&dq=maslow+necesidades+basicas+ni%C3%B1os+morrison&hl=es&sa=X&ei=kZCqVI>

P2B8j5UOi1gugN&ved=0CCEQ6wEwAA#v=onepage&q=maslow%20necesidades%20basicas%20ni%C3%B1os%20morrison&f=false

- Palomera, R.; Gil-Olarte, P.; Brackett, M. (2006). ¿Se perciben con inteligencia emocional los docentes? Posibles consecuencias sobre la calidad educativa. *Revista de Educación*; 341: 687-703. 2015-01-02an hartuta, hemendik: http://www.revistaeducacion.mec.es/re341/re341_28.pdf
- Poch, S. (2001). Importancia de la Musicoterapia en el Área Emocional del Ser Humano. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 42: 91-113. 2015-01-02an hartuta, hemendik: http://w.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1222182241.pdf#page=91
- Rodríguez, A. (2001). Visión crítica de la Musicoterapia dentro del sistema educativo en nuestro país. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 42: 13-18. 2015-01-02an hartuta, hemendik: http://w.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1222182241.pdf#page=13
- Sanz de Acedo, M. L. (2000). Gardner, Howard. Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (I). *Hik hasi*, 51. 2014-12-27an hartuta, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/598>
- Vílchez, P. S. (2002). Evolución de los conceptos sobre inteligencia. Planteamientos actuales de la inteligencia emocional para la orientación educativa. *Educación XX1*, 5, 97-121. 2015-05-27an hartuta, hemendik: <http://search.proquest.com/docview/1112222359?accountid=17248>
- Waisburd, G. eta Erdmenger, E. (2007). El poder de la música en el aprendizaje. *Cómo lograr un aprendizaje acelerado y creativo*. Sevilla: Eduforma.

Eranskinak

1. Behaketen erregistroa

<i>Data</i>	Otsailak 3
<i>Ordua</i>	9:00-9:10
<i>Tokia</i>	Ikasgela: korroa
<i>Behaketaren deskribapena</i>	Ikasleak gelara heltzen joan diren heinean korroan esertzen joan dira. Guztiak prest egon direnean, irakasleak abesti bat jarri du pantailan letra proiektatuz ikasleek abesteko. Ezagutzen duten abestia da, lantzen ari diren gaiarekin lotuta dagoena.
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	Saio bakoitzaren hasieran korroan biltzen dira, bertan ikasleen arreta mantentzea errazagoa delako eta horrek klaseko jardueran zentratzen laguntzen duelako. Musikak ere ikas-giro egokia sortzen laguntzen du, ikasleek gelaz kanpoko jokabideak edo elkarrizketak baztertzeko momentua dela ulertzen dutelako. Normalean abesti lasaiak izaten dira, baina abestu behar dutenez, jarrera aktiboa bultzatzen da.

<i>Data</i>	Otsailak 9
<i>Ordua</i>	2:30-3:30
<i>Tokia</i>	Ikasgela: lan-mahaiak
<i>Behaketaren deskribapena</i>	Berrogei minutu inguru irakurketa lantzen egon ondoren, irakasleak fitxa margotzea proposatu die. Bitartean, Erdi Aroko musika lasaia jarri du, hori baita lantzen ari diren gaia. Saioa bukatzean ere, gaiari buruzko abesti bat jarri du pantailan letra proiektatuz ikasleek abesteko.
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	Esfortzua eta arreta eskatzen duten jarduerak burutzean, ikasleak nekatuta daudela nabaritzen denean, atsedenaldirik txiki bat egiten da jarduera deigarriagoak eta lasaiagoak proposatuz. Normalean, musika erabiltzen da entzunaldi gisa beste jarduera bat egiten den bitartean edo ikasleek abestu edota dantzatzeko. Modu horretan, ikasleek ondoren lanari berriro gogoz ekitea lortzen da.

<i>Data</i>	Otsailak 12
<i>Ordua</i>	2:30-4:00
<i>Tokia</i>	Gimnasioa
<i>Behaketaren deskribapena</i>	<p>Arratsaldeko saioan, gimnasia joan dira jolastera. Bertan dauden koltxonetekin, bankuekin, oihalekin eta jantziekin modu librean jolasteko askatasuna izan dute; arau bakarri inor baztertuta ez gelditzea izan da. Arazo edo gatazkarik egotekotan, horretan parte hartu dutenek ez dute jolastuko, izkina batean eseri eta gainerakoei disfrutatzen utziko diete.</p> <p>Irakaslea bazter batean eseri da eta umeen arteko harremanak eta gaitasun sozialak aztertzen ibili da, baina arazoren bat sortu denean ez du esku-hartzerik egin. Umeei haien artean dituzten arazoak konpontzen utzi die.</p> <p>Diziplina ezartzeko eta taldearen kontrola eramateko, irakasleak pandero bat hartu du, zerbait esan behar izan duenean panderoa jo du eta umeak isildu eta lurrean etzan dira.</p>
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	<p>Normalean, Lehen Hezkuntzako etapan jolasteari eta harreman sozialak garatzeari denbora gutxi eskaintzen zaie, eta tutoreak garrantzia ematen die bi alderdi horiei. Hori dela eta, ostegun arratsaldetan gimnasioa libre egoten dela aprobetxatuz, bertara joaten dira jolastera.</p> <p>Nahiz eta modu librean jolasteko aukera eman eta irakasleak ia interbentziorik ez egin, diziplina-arauak oso ondo definituta daude eta baita arau horiek ez betetzeak dituen ondorioak. Arau horiek talde-integrazioarekin lotuta daude, alderdi sozialean sakontzea baita jarduera honen helburu nagusia.</p> <p>Panderoa jotzean lurrean etzan eta isildu behar izatea ikasleen aktibitate fisikoa baretzen eta haien arreta bereganatzen laguntzen du.</p>

<i>Data</i>	Otsailak 16
<i>Ordua</i>	2:30-4:00
<i>Tokia</i>	Ikasgela: lan-mahaiak
<i>Behaketaren deskribapena</i>	<p>Irakaslea arbela digitalean lantzen ari diren gaiaren inguruko aurkezpena jarri eta bertan agertzen diren irudiei eta kontzeptuei buruzko galderak modu orokorrean egiten egon da. Ikasleren batek erantzuna jakitekotan, eskua altxatu behar izan du eta irakasleak hitza ematean erantzun. Batzuetan, aldiz, irakasleak norbaiti zuzenean galdetu dio; batez ere, normalean parte hartzen ez dutenei.</p> <p>Momentu batean hori egin du eta ikasleak ez du erantzun nahi izan, isilik gelditu da. Baina irakasleak ez du hori onartu eta erantzun duen arte ez du dinamikarekin aurrera jarraitu. Tarte horretan besteek bezala erantzungo duela esan dio eta beste ikasleei erantzuteko aukera eman die laguntzeko, hots, honek erantzuna ez jakitekotan besteek esandakoa errepikatzeko.</p> <p>Halaber, normalean hitz egiteko iniziatiba ez duen ikasle batek eskua altxatu duenean, zuzenean hitza eman dio.</p>
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	<p>Jarraitutako dinamika hau askotan erabiltzen dute, hau da, irakasleak azalpenak eman beharrean galderak botatzen ditu, ikasleek jadanik dakitenarekin erantzuteko eta ikaskideei azaltzeko. Ikasleek haien ezagutza eraiki eta konpartitzen dutela esan daiteke, irakasleak prozesu horretan lagundu eta bideratzen dituen bitartean.</p> <p>Normalean ikasle berdinek hartzen dute parte, lotsatiagoak direnak edo arreta mantentzeko zailtasunak dituztenak entzulearen paperean geldituz. Baina orekatzearren, tutorea zenbaitetan parte hartzen ez duten ume horiei zuzendu egiten da eta ez du onartzen erantzunik ez jasotzea. Ikasle bakoitzari erantzun ditzakeen galderak egiten dizkio ikaskideen aurrean txarto erantzutearen beldur ez izateko, eta badaezpada besteei laguntzeko esaten die erantzun</p>

	<p>behar duen horrentzako erantzuna ez badaki egoera deserosoa izan ez dadin.</p> <p>Halaber, normalean berba egiten ez duen umeren batek inizatiba hartzen duenean zuzenean berari hitza ematean, jarrera hori indartu egiten da eta taldeari eskaini behar dion hori interesgarria dela ulertarazten zaio ikasleari.</p>
--	--

<i>Data</i>	Otsailak 17
<i>Ordua</i>	11:30-12:30
<i>Tokia</i>	Ikasgela: lan-mahaiak
<i>Behaketaren deskribapena</i>	Irakasleak jardueren inguruko azalpenak korroan eman ondoren, ikasleak lan-mahaietan eseri eta lanari ekin diote. Ikasle batek, ordea, fitxetan eskatzen dena idatzi beharrean, nahi izan duena erantzun du eta ikaskideei begira gelditu da. Irakasleak idatzitakoa ezabatzeko eta ariketan eskatzen dena erantzuteko esan dio, baina ikasleak ez du ezabatu nahi izan. Irakasleak ez dio jarrera hori onartu eta ariketak ondo egin dituen arte ez dio baimenik eman jantokira jaisteko.
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	Hainbat ikaslek arreta bereganatzeko beharra dute haien buruarekiko duten segurtasun faltagatik edota harreman sozialetarako trebetasunetan gabeziak dituztelako. Askotan, irakaslearen arreta lortzeko jokabide desegokiak hartzen dituzte. Tutoreak ikasle horien jarrerak identifikatuta dauzka eta horrelako kasuetan haiei denbora gehiago ez eskaintzen saiatzen da, hori egitekotan ikasleek jokabide horien bidez haien helburua lor dezaketela ulertuko luketelako. Horren orde, irakasleak agindu laburrak eta argiak ematen dizkie, eta ikasleek horiek bete arte ez dute aukerarik beste ekintza batera igarotzeko.

<i>Data</i>	Otsailak 19
<i>Ordua</i>	2:30-3:00
<i>Tokia</i>	Ikasgela: korroa
<i>Behaketaren deskribapena</i>	Atsedenalitik bueltan, korroan bildu dira ohiko moduan eta atsedenaldiran sortutako gatazken inguruan hizketan egon dira. Ikasleek, txandak errespetatuz, gertatutakoa azaldu diote irakasleari. Honek egoera hobeto ulertzeko galderak egin ditu eta, ondoren, konponbidea zein izan daitekeen galdetu die umeei, erantzuna haiek bilatzeko.
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	Korroa afektiboki hurbila den espazioa da, elkarrizketarako eta alderdi sozialaren inguruko gaiak jorrazteko aukera ematen du. Tutoreak bi aspektu horiei (elkarrizketa eta alderdi soziala) garrantzi handia ematen die eta sortzen diren arazoak momentuan konpondu ohi dituzte. Normalean, ez du konpontzeko prozesu horretan zuzenean parte hartzen, ikasleei haien kabuz egiteko aukera ematen die, autonomia eta trebetasun sozioalak garatzeko.

<i>Data</i>	Otsailak 23
<i>Ordua</i>	9:00-10:00
<i>Tokia</i>	Ikasgela: korroa
<i>Behaketaren deskribapena</i>	Hainbat ikaslek Egiptoko proiektuarekin hasteko, informazioa, liburuak, argazkiak, etab. ekarri dute. Banan-banan, materiala ikaskideei erakutsi eta azaldu diete, bitartean irakaslea galderak botatzen egon delarik. Horrela, sortu diren zalantzak ikasleen artean argitu dituzte.
<i>Hausnarketa eta tutorearekin kontrastatzea</i>	Lan egiteko erabiltzen den metodologia honek ikasleei haien ikaskuntza-prozesuan modu aktiboan parte-hartzeko aukera ematen die eta baita ezagutza konpartitzeko. Horrek jarrera baikorragoaz lan egitera bultzatzen ditu, eskolako jardueretikiko interesa piztuz.

2. Proposamen didaktikoak

2.1. Lehenengo saioa

Planteamendua

Jardueraren izena	ZER EGITEN DUT ONDO?
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Nork bere nortasuna eraikitzea bere gaitasunen kontzientzia hartuz. – Norberaren gaitasunak modu positiboan baloratzea autoestimua indartzeko. – Kideekiko oinarrizko errespetuzko jarrerak erakustea bizikidetza eta giro positiboa lortzeko. – Ikasle guztiek taldearen barnean nabarmentzeko protagonismo-momentu batez gozatzeko aukera izatea eta taldeko kide sentitzea. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena eta musika, hain zuzen.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Auto-ezagutza eta autoestimua. – Bizikidetza. – Taldeko parte-hartzea. – Gorputz-adierazpena eta musika komunikazio-bide gisa.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: ikasgelako korroa. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: ikasleak korroa osatzen duten bankuetan eserita egongo dira irakasleari begira. Aurkezpena egitea tokatzen zaion ikaslea irakaslearen ondoan zutik kokatuko da, hori baita ikasleen erreferentziazko atentzio-puntua. – Baliabide didaktikoak: ez da baliabiderik behar. – Denbora: 15-20 minutu.
Jardueraren garapena	Ikasle bakoitzak ondo ematen zaion zerbait pentsatu beharko du. Txandaka, mimika edo soinu bidez ondo egiten duen ekintza hori

	<p>antzeztu beharko du gainerako kideek asma dezaten.</p> <p>Ikasle guztiek hartuko dute parte ekintzan, hau da, guztiek izango dute aukera ondo ematen zaien hori azaltzeko.</p> <p>Asmatzerakoan, hitz egiteko txandak errespetatuko dira. Proposamenen bat egin nahi duenak eskua altxatuko du eta ezin izango du hitz egin irakasleak edota antzezten ari den umeak hitza ematen dion arte.</p>
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Norberaren ezaugarri pertsonalak edota gaitasunak antzemateko gai izatea. – Norberaren ezaugarri edota gaitasunak positiboki baloratzea. – Bizikidetzara-arauek errespetatzea; batez ere, hitz egiteko txanda errespetatzea eta ikaskideen ekarpenak errespetatzea eta aintzat hartzea. – Proposatzen diren jardueretik jarrera aktiboa eta interesa erakustea. – Gorputzaren eta mugimenduaren bidez egoerak edo ekintzak irudikatzea.

Behaketa

- Ikasleek oso jarrera aktiboa izan dute, eroso egon dira eta dibertitu egin dira. Beraz, jarduerari 15-20 minutu eskaini beharrean, saio oso bat eskaini zaio.
- Ume batzuei bortitzegia suertatu zaie ikaskideen aurrean zutik jartzea eta gorputzaren bidez adierazi behar izatea.
- Jardueraren planteamendua pentsamendu arrazionaletik abiatu da eta kanpora zuzendua egon da, ikaskideei. Horrek ikasle batzuk blokeatuta gelditzea eragin du, ongizatea sentitu ordez ikaskideengandik ebaluatuak sentitzearen beldurra izan dutelako.

Ondorioak eta birmoldaketak

- Planifikazioa egitean, jardueren iraupena ikasleen jarrera eta erantzunetara egokituko da.
- Taldea antolatzeko modua borobilean izango da, kide guztiak egoera berean egotea eta elkarren arteko ikus-kontaktua ahalbidetzen duelako, komunikazioa eta elkarrekintzak erraztuz.
- Musikaren bizipenean eta horren bidez sortzen den giro positiboan oinarritutako jarduerak proposatuko dira.

2.2. Bigarren saioa

Planteamendua

Jardueraren izena	ORKESTRA ZUZENDARIA
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Kideekiko oinarrizko errespetuzko jarrerak erakustea bizikidetza eta giro positiboa lortzeko. – Ikasle guztiek taldearen barnean nabarmentzeko protagonismo-momentu batez gozatzeko aukera izatea eta taldeko kide sentitzea. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena eta musika, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeko. – Talde-kohesioa lortzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Bizikidetza. – Taldeko parte-hartzea eta kohesioa. – Gorputz-adierazpena eta musika komunikazio-bide gisa.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: ikasgelako korroa. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: korroa osatzen duten bankuekin eta aulkiekin borobil bat osatuko da ikasleak bertan eser daitezen eta guztien arteko kontaktu bisuala egon dadin. – Baliabide didaktikoak: ez da baliabiderik behar. – Denbora: saio bat.
Jardueraren garapena	Jolas modura aurkezten den talde-dinamika hau honetan datza: taldeak orkestra baten papera hartuko du eta taldekide batek, zuzendariaren rola edukiko duena, gorputzarekin egiten dituen keinuak, mugimenduak edo soinuak imitatu beharko ditu. Ume

	guztiek izango dute zuzendariaren rola hartzeko aukera.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetzara-arauek errespetatzea; batez ere, txanda errespetatzea eta ikaskideen ekarpenekiko interesa eta jarrera aktiboa izatea. – Proposatzen diren jardueretikiko jarrera aktiboa eta interesa erakustea taldekideekin elkarrekintzan arituz. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Gorputzarekin esperimentatzea keinu, mugimendu edo soinu desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko.

Behaketa

- Parte-hartzeko zailtasunak dituzten ume batzuei zuzendariaren rola hartzea, hots, eredia ematea kostatu zaie. Nik haiek inkontzienteki egindako mugimenduak imitatu ditut eta gainerako ikasleei barregarri iruditu zaienez, nire modura imitatzen hasi dira. Kasu batzuetan, inizatiba hartu eta zuzendariaren rol aktiboa hartu dute, lotsa gaindituz. Beste kasuetan, ordea, ez da horrela izan.
- Ikasleek energia gehiegi eta mugitzeko beharra dutela antzeman da, beharbada atsedenaldira ondorengo saioa izan delako.

Ondorioak eta birmoldaketak

- Parte-hartzea bideratzeko, lehendabizi nik neuk emango dut eredia eta, ondoren, ikasleak dinamikan sartuta daudenean haiei emango diet txanda. Parte hartzeko ohitura dutenak hasiko dira eta gainerakoek gero eta erosoago sentitzen direla nabaritzen dudanean egingo dute. Hauen kasuan, babesa transmititzen saiatuko naiz aprobaziozko begiradak eta barreak eskainiz.

- Hurrengo saioetan, mugimendu gehiago eskatzen duten jarduerak planteatuko dira. Energia kudeatzen saiatuko da, progresiboki handituz eta saioaren bukaeran baretuz. Saioa lurrean eserita hasiko da mugimendu txikiak eskatzen dituzten jarduerekin, ondoren espazioan zehar askatasunez eta mugimendu handiz mugitzeko jarduerak egingo dira eta, amaitzeko, lurrera bueltatu dira musika lasiaz erlaxatzeko. Horretarako, espazio zabalagoa beharko da, liburutegia adibidez.

2.3. Hirugarren saioa

Planteamendua

Jardueraren izena	GORPUTZ-ATALEK DANTZATU EGITEN DUTE
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Kideekiko oinarrizko errespetuzko jarrerak erakustea bizikidetza eta giro positiboa lortzeko. – Ikasle guztiek taldearen barnean nabarmentzeko protagonismo-momentu batez gozatzeko aukera izatea eta taldeko kide sentitzea. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeta. – Talde-kohesioa lortzea. – Musikak norberarengan eragiten dituen gorputz-mugimenduengan konfiantza izatea eta horiek egitean gozatzeta.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetza. – Taldeko parte-hartzea. – Gorputz-adierazpena eta komunikazioa. – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Talde-kohesioa. – Autokonfiantza. – Musika eta gorputz-adierazpenaren bidezko gozamina.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako eta musika jarri ahal izateko ordenagailua. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: lurrean eserita borobil bat osatuz, guztien arteko kontaktu bisuala egon dadin.

	<ul style="list-style-type: none"> – Baliabide didaktikoak: musika alaia eta erritmikoa. <ul style="list-style-type: none"> ○ “Happy”-C2C ○ “Uptown funk”-Mark Ronson ft. Bruno Mars – Denbora: 5-10 minutu.
Jardueraren garapena	<p>Musika bat oinarri izanda, taldeko kide batek eredua emango du doinu horrek eragiten dizkion mugimenduak eginez. Mugimenduak, ordea, gorputz-atal bakar batekin burutuko dira. Dinamika ondo ulertzeko hasieran irakasleak emango du eredua, baina gero ikasle guztiek izango dute horretarako aukera.</p>
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetzara-arauek errespetatzea; batez ere, parte hartzeko txanda errespetatzea eta ikaskideen ekarpenak errespetatzea eta aintzat hartzea. – Proposatzen diren jardueretik jarraera aktiboa eta interesa erakustea. – Gorputzarekin esperimentatzea keinu edo mugimendu desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Taldekideekin elkarrekintzan aritzea. – Musikak norberarengan eragiten dituen mugimenduak adierazteko gai izatea eta prozesu horretan ongizatea erakustea.

Behaketa

- Ikasleek jarraera aktiboa izan dute, parte hartzeko gogoarekin, baita zailtasun gehien dituzten umeez. Hori dela eta, jarduera luzatu egin da beste abesti bat erabiliz.
- Hasieran, eredua nik eman dut eta umeak dinamikan sartuta eta eroso nabaritu ditudanean, txanda haiei eman diet. Lehendabizi, taldean parte hartu ohi dutenei eman diet eta, ondoren, zailtasun gehiago dituztenei.

Horrela, denbora gehiago utzi zaie ekintzaz disfrutatzeko eta taldearen barruan eroso sentitzeko.

Ondorioak eta birmoldaketak

- Planifikazioa egitean, jardueren iraupena ikasleen jarrera eta erantzunetara egokituko da.
- Parte-hartzea sustatzerakoan, jarraitutako prozedura mantenduko da, ondorioak positiboak izan baitira.

Planteamendua

Jardueraren izena	BIKIAK
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeari. – Talde-kohesioa lortzea. – Musikak norberarengan eragiten dituen gorputz-mugimenduengan konfiantza izatea eta horiek egitean gozatzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Gorputz-adierazpena eta komunikazioa. – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Talde-kohesioa. – Autokonfiantza. – Musika eta gorputz-adierazpenaren bidezko gozamina.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako eta musika jarri ahal izateko ordenagailua. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: espazioan zehar libreki mugituko dira. – Baliabide didaktikoak: musika alaia eta erritmikoa. <ul style="list-style-type: none"> ○ “Corazón viajero”-Txarango – Denbora: 10-15 minutu.
Jardueraren garapena	<p>Jarduera hau binaka dantzatzean datza, baina berezitasun batekin: irakasleak aukeratzen duen gorputz-atal jakin bat itsatsita. Aukeraketarako prozedura “komekokos” baten bitartez izango da, ikasle batek zenbaki bat esan eta komekokosa kopuru hori zabalduta eta itxi ondoren gelditzen den lau koloreen artean bat hautatuko du. Kolore horren atzealdean idatzitako gorputz-</p>

	<p>atala izango da bikoteak itsatsita dantzatu beharko dutena. Musika gelditzen den bakoitzean, gorputz-atala eta bikoteak aldatuko dira.</p>
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Gorputzarekin esperimentatzea keinu edo mugimendu desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Taldekideekin elkarrekintzan aritzea. – Musikak norberarengan eragiten dituen mugimenduak adierazteko gai izatea eta prozesu horretan ongizatea erakustea.

Behaketa

- Normalean harremantzeko zailtasunak dituzten bi ume oso eroso egon dira eta ez dute inolako arazorik eduki jardueran parte hartzeko. Hainbati, aldiz, bikote-aldaketa egitea kostatu zaie, hots, hainbesteko konfiantza ez duten ikaskideekin dantzatzea.

Ondorioak eta birmoldaketak

- Harremanak sortzeko askatasuna edukitzea hainbatentzat onuragarria izan denez, prozedura horrekin jarraituko da. Baina harremanak zabaltzeko beste bideren bat bilatuko da, zailtasunak izan dituzten ikasleek ume gehiagorekin erlazionatzeko. Proposamena bikoteak sortzen hastea eta progresiboki taldekatzea handitzen joatea izan daiteke. Horrela, zailtasunak dituzten ume horiek hasieran bikote hautatu duten ikaskidearen babesa izango dute gainontzekoei hurbiltzerakoan.

Planteamendua

Jardueraren izena	SOINUEN MAKINA
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Kideekiko oinarrizko errespetuzko jarrerak erakustea bizikidetza eta giro positiboa lortzeko. – Ikasle guztiek taldearen barnean nabarmentzeko protagonismo-momentu batez gozatzeko aukera izatea eta taldeko kide sentitzea. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena eta musika, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeko. – Talde-kohesioa lortzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetza. – Taldeko parte-hartzea. – Gorputz-adierazpena eta musika komunikazio-bide gisa. – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Talde-kohesioa.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: lurrean eserita borobil bat osatuz, guztien arteko kontaktu bisuala egon dadin. – Baliabide didaktikoak: ez da baliabiderik behar. – Denbora: 10-15 minutu.
Jardueraren garapena	<p>Borobilean eserita, taldekide batek keinu bat egingo du eta hori laguntzen duen soinu bat. Ondoren, gainerako taldekideek imitatu egingo dute. Hurrengo taldekideak bere keinua eta soinua egingo ditu, eta talde osoak lehenengo taldekidearen keinua eta soinua eta ondoren bigarrenarenak egingo dituzte. Eta horrela</p>

	taldekide guztien proposamenak jarraian egin arte.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetzara-arauek errespetatzea; batez ere, parte hartzeko txanda errespetatzea eta ikaskideen ekarpenak errespetatzea eta aintzat hartzea. – Proposatzen diren jardueretik jarrera aktiboa eta interesa erakustea. – Gorputzarekin esperimentatzea keinu, mugimendu edo soinua desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Taldekideekin elkarrekintzan aritzea.

Behaketa

- Gainerako jarduerak luzatu direnez, ez da denborarik egon jardura hau aurrera eramateko.

Ondorioak eta birmoldaketak

- Hurrengo saioan burutuko da.

Planteamendua

Jardueraren izena	ERLAJAZIOA
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Urduritasuna baretzeko estrategiak garatzea. – Musikak norberarengan duen eraginaz eta emozioak kudeatzeko ematen dituen aukerez ohartzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Emozioen kudeaketa. – Musikaren alderdi emozionala.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako eta musika jarri ahal izateko ordenagailua. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: ikasleak lurrean etzanda egongo dira eta irakaslea espazioan zehar mugituz joango da. – Baliabide didaktikoak: musika lasaia. <ul style="list-style-type: none"> ○ “Compta amb bi”-Txarango ○ “Batega”-Txarango – Denbora: 5 minutu.
Jardueraren garapena	Musika lasai bat jarriko da eta ikasleak, lurrean etzanda eta begiak itxita, isiltasuna mantentzen eta saioan zehar sortu den urduritasuna baretzen saiatuko dira. Bitartean, irakaslea bizkarrean edota buruan laztanak egingo dizkie erlajazio-prozeu hori erraztearren.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Musikak norberarengan eragiten duen lasaitasunaz baliatuz, erlajitzen saiatzea.

Behaketa

- Egoera berria eta desberdina izan denez, barrezka eta hitz egiten egon dira. Beraz, denbora gehiago eskaini behar izan zaio, abesti bat gehiago.

- Lasaitzeko, bizkarrean laztanak egin dizkiet eta, orokorrean, erantzuna positiboa izan da. Hau da, lasaiago egon dira.

Ondorioak eta birmoldaketak

- Jardueraren helburua lortzeko, hurrengo saioan denbora gehiago eskainiko zaio, 10-15 minutu.
- Laztantzean gehiago lasaitu direnez, hurrengoan errepikatu egingo da.

2.4. Laugarren saioa

Planteamendua

Jardueraren izena	SOINUEN MAKINA
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Kideekiko oinarrizko errespetuzko jarrerak erakustea bizikidetza eta giro positiboa lortzeko. – Ikasle guztiek taldearen barnean nabarmentzeko protagonismo-momentu batez gozatzeko aukera izatea eta taldeko kide sentitzea. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena eta musika, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeko. – Talde-kohesioa lortzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetza. – Taldeko parte-hartzea. – Gorputz-adierazpena eta musika komunikazio-bide gisa. – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Talde-kohesioa.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: lurrean eserita borobil bat osatuz, guztien arteko kontaktu bisuala egon dadin. – Baliabide didaktikoak: ez da baliabiderik behar. – Denbora: 10-15 minutu.
Jardueraren garapena	Borobilean eserita, taldekide batek keinu bat egingo du eta hori laguntzen duen soinu bat. Ondoren, gainerako taldekideek imitatu egingo dute. Hurrengo taldekideak bere keinua eta soinua egingo ditu, eta talde osoak lehenengo taldekidearen keinua eta

	soinua eta ondoren bigarrenarenak egingo dituzte. Eta horrela taldekide guztien proposamenak jarraian egin arte.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetzara-arauek errespetatzea; batez ere, parte hartzeko txanda errespetatzea eta ikaskideen ekarpenak errespetatzea eta aintzat hartzea. – Proposatzen diren jardueretik jarraera aktiboa eta interesa erakustea. – Gorputzarekin esperimentatzea keinu, mugimendu edo soinua desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Taldekideekin elkarrekintzan aritzea.

Behaketa

- Orokorrean, dibertitu egin dira eta ez zaie kostatu taldean parte hartzea. Zailtasun gehiago dituzten ikasleek ez dute denbora gehiegi izan behar haien ekarpena egiteko.

Planteamendua

Jardueraren izena	BESARKADA MUSIKALAK
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Kideekiko oinarrizko errespetuzko jarrerak erakustea bizikidetza eta giro positiboa lortzeko. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeko. – Talde-kohesioa lortzea. – Musikak norberarengan eragiten dituen gorputz-mugimenduengan konfiantza izatea eta horiek egitean gozatzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetza. – Gorputz-adierazpena eta komunikazioa. – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Talde-kohesioa. – Autokonfiantza. – Musika eta gorputz-adierazpenaren bidezko gozamina.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako eta musika jarri ahal izateko ordenagailua. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: espazioan zehar libreki mugituko dira. – Baliabide didaktikoak: musika alaia eta erritmikoa. <ul style="list-style-type: none"> ○ “Ain’t no mountain high enough”-Marvin Gaye ft. Tammi Terrell ○ “Blurred lines”-Robin Thicke ft. T.I. Pharrell – Denbora: 10-15 minutu.

Jardueraren garapena	Musika jartzen den lehenengo aldian umeek espazioan zehar askatasunez mugitzeko eta dantzatzeko aukera izango dute. Mugita isiltzean, ikaskide batengana hurbildu eta besarkada bat eman beharko dio, eta musikak jotzen duen hurrengo aldian binaka dantzatu beharko dute. Musika gelditzen den hurrengo aldian, bikote bakoitza beste bikote batengana hurbildu eta besarkatu egin beharko du, eta musikak jotzen duenean launaka dantzatu beharko dute. Horrela, gelako ume guztiak besarkada batean biltzen diren arte.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetzara-arauek errespetatzea; batez ere, parte hartzeko txanda errespetatzea eta ikaskideen ekarpenak errespetatzea eta aintzat hartzea. – Gorputzarekin esperimentatzea keinu edo mugimendu desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Taldekideekin elkarrekintzan aritzea. – Musikak norberarengan eragiten dituen mugimenduak adierazteko gai izatea eta prozesu horretan ongizatea erakustea.

Behaketa

- Hasieran dinamika ondo joan da: ikasleak elkarrekin dibertitu dira eta ez da arazorik sortu taldeak osatzean. Jarduera aurrera joan ahala, berriz, ume batzuk gehiegi urduritu dira eta bultzaka hasi dira. Ikasle horiek dinamikatik kanpo gelditu dira eta banakako azalpena eman zaie jarduera ez gelditzeko, besteekiko enpatian sakonduz: besteek disfrutatzen duten eskubidea errespetatu behar da, eta hori ez egitekotan ez dago aukerarik jardueran parte hartzeko.

- Ume bat musika gelditu dudan lehenengo aldian nigana etorri da zuzenean besarkada ematera. Emozioak adierazteko zailtasunak dituen umea izanik, aurrerapauso positiboa da. kontaktu fisikoaren bidez nirekiko sentitzen duen miarasmena transmititzen saiatu da, egunerokotasuneko harremanetan adierazteko gai ez dena.

Planteamendua

Jardueraren izena	HIPODROMOA
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Ikasle guztiek taldearen barnean nabarmentzeko protagonismo-momentu batez gozatzeko aukera izatea eta taldeko kide sentitzea. – Ahozko komunikazioaz gain, komunikatzeko beste bide batzuk ezagutzea eta praktikan jartzea; gorputz-adierazpena, hain zuzen. – Lotsa edota urduritasun emozioei aurre egiteko estrategiak garatzea eta besteek horrelako emozioak aurkezten dituztenean enpatiaz jokatzeko. – Talde-kohesioa lortzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Taldeko parte-hartzea. – Gorputz-adierazpena eta komunikazioa. – Emozioen kudeaketa. – Enpatia. – Talde-kohesioa.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: lurrean eserita borobil bat osatuz, guztien arteko kontaktu bisuala egon dadin. – Baliabide didaktikoak: ez da baliabiderik behar. – Denbora: 10-15 minutu.
Jardueraren garapena	<p>Dinamika honetan zaldi-lasterketa bat antzeztuko da, eskuekin hanketan joz zaldien ibilera irudikatuz. Taldekide guztiek erritmo bera eramango dute, eredia den taldekide batek markatuko duena. Eredua ematen duenak abiadura aldatzeko aukera izango du eta gainerakoek jarraitu egin beharko diote. Erakargarriagoa eta dinamikoagoa izateko, hainbat elementu desberdin sartu ahal dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ikusleak agurtzea.

	<ul style="list-style-type: none"> – Heziak saltatzea, besoak gora mugituz. – Bukaerako “sprint”-a, abiadura asko azkartuz. – Bukaerako argazkia guztiak aurpegi barregarriak jarritz.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Proposatzen diren jardueretik jarraera aktiboa eta interesa erakustea. – Gorputzarekin esperimintatzea keinu edo mugimendu desberdinak, orijinalak eta berriak aurkitzeko eta konpartitzeko. – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Ikaskideen emozioak errespetatzea. – Taldekideekin elkarrekintzan aritzea.

Behaketa

- Orokorrean, oso eroso egon dira eta parte-hartze aktiboa izan dute. Dinamikan elementu berriak sartu dituzte ikaskideengan barrea sorrarazteko eta taldearen erantzun horrek sortzen duen ongizate pertsonala sentitzeko. Hori egiteko askatasuna eman diet, horrela ume gehiagok parte hartzeko inizatiba hartu dutelako.

Planteamendua

Jardueraren izena	ERLAJAZIOA
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> – Urduritasuna baretzeko estrategiak garatzea. – Musikak norberarengan duen eraginaz eta emozioak kudeatzeko ematen dituen aukerez ohartzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> – Emozioen kudeaketa. – Musikaren alderdi emozionala.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> – Espazioa: liburutegia, espazio zabal bat dagoelako eta musika jarri ahal izateko ordenagailua. – Ikasleen eta irakaslearen antolaketa eta kokapena: ikasleak lurrean etzanda egongo dira eta irakaslea espazioan zehar mugituz joango da. – Baliabide didaktikoak: musika lasaia. <ul style="list-style-type: none"> ○ “The call”-Regina Spektor ○ “One sound”-Albarosie ○ “Skinny love”-Birdy – Denbora: 10 minutu.
Jardueraren garapena	Musika lasai bat jarriko da eta ikasleak, lurrean etzanda eta begiak itxita, isiltasuna mantentzen eta saioan zehar sortu den urduritasuna baretzen saiatuko dira. Bitartean, irakaslea bizkarrean edota buruan laztanak egingo dizkie erlaxazio-prozesu hori erraztearren.
Ebaluazio-irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> – Norberaren emozioak antzematea, onartzea eta horiek kudeatzeko gaitasuna izatea. – Musikak norberarengan eragiten duen lasaitasunaz baliatuz, erlajutzen saiatzea.

Behaketa

- Arratsaldeko saioa izanik, lasaitzeko aurreko saioan baino denbora gehiago behar izan dute, baina laztanen bidez eta musikaren bolumena jaitsiz, giroa baretuz joan da isiltasunean gelditu diren arte.